

5 nekaTXEKEren zozketako oinarriak:

- NekaTXEKEA urte guztian erabil daiteke.
- 70 euroko nekaTXEKEArekin, aukeratutako NEKATURreko ostatuan zerbitzu edo produktuekin osa daiteke egonaldia. NekaTXEKE hori bi pertsonarentzako gau baterako egonaldiaren eta gosariaren baliokidea izan daiteke Euskal Herriko nekazaritza etxeetan.
- Egonaldi bakarrean trukatu beharko da nekaTXEKEAren balio osoa.
- NekaTXEKEA aipatutako egonaldi, zerbitzu eta produktuak ordaintzeko erabil daiteke, edo kostu handiagoa badute, horien zati bat ordaintzeko.
- Hitzartutako zerbitzu edo produktuen kostua nekaTXEKEAren balioa baino handiagoa bada, bezeroak ordaindu beharko du aldea.
- Hitzartutako zerbitzu edo produktuen kostua nekaTXEKEAren balioa baino txikiagoa bada, bezeroak ostatuaren beste zerbitzu edo produkturen bat erosi ahal izango du, txekearen balioa berdindu arte. Ez da egingo diru itzulketarik, ezein egoeratan.
- NekaTXEKEAk iraungitze data izango du, eta txekean adierazitako datara bitarte balioko du.
- NekaTXEKEA NEKATURren bitartez erreserbatuko da beti (943-32 70 90).
- Ezeztapenak: behin erreserba eginda, ez da onartuko ezeztapenik. Data aldaketak soilik egin ahal izango dira: ostatuan bertan egin beharko dira, eta jabeari inongo eragozpenik eragiten ez badiote soilik onartuko dira data aldaketak. Data aldaketa ere NEKATURren bitartez egingo da.